

16.6 .Ikasgela Zerbitzua

Espediente kodea: IKAS

Zer da? Zertarako da?

Ikasleek erabili dezaketen espazioa da. Gabriel Zelaia atzeko eraikinean kokatuta dago, eta sarbide baimen-txartel bitartez kudeatzen da. Hernaniko Udalak Biteri kultur etxeko ikasgela zerbitzuaren osagarria den ikasgela hau 2016 urtean jarri zuen abian.

Nork eska dezake?

16 urtetik gorako ikasleek.

Eskaera epea:

Urte osoan eskatu daiteke baimen-txartela.

Erabilera baldintzak

Erabiltzailea izateko baldintzak:

- Bertako araudia errespetatzea
- 16 urte beteta edukitzea
- 5 €-ko fidantza ordaintzea

Zerbitzuaren egutegi eta ordutegiak:

Asteburu eta jai-egunetan: 8:00 – 21:45.

Opor egunetan bi ordutegi egon daitezke:

15:30-21:45

8:00-21:45

Kontsultatu egutegia udaleko web orrian

Aurkeztu beharreko agiriak:

- [Eskaera-orria](#) beteta eta sinatuta.

Nola eskatzen da?

- **Aurrez aurre:** Hernaniko liburutegian (Biteri kultur etxean).
- **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu.
943 33 70 41 telefonora deituz informazio jaso daiteke.

Zenbat kostatzen da?

5€-ko fidantza dauka. Txartela liburutegira itzultzen denean 5€-ak berreskuratzen dira.

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura:

- Haur eta Gazteria Arloa bideratu.
- Erregistratu eta txartelaren jarraipena egin.
- Fidantzaren kudeaketa Bilketa Arloarekin egin.

Tramitzatzeko ardura duen udal saila:

Haur eta Gazteria Arloa (Aristizabal kalea 7)

Informazio gehiago: e-posta: gazteria@hernani.eus; 943 337041

Oharrak:

- Eskatzailea adingabea den kasuan guraso edo tutoreek sinatu beharko dute eskaera.
- Erabiltzaileak [araudia](#) bete behar du.
- Ikasgelan gauzak uzteko armairutxoak daude, giltzarrapoa norberak eraman behar du.
- Ezin zaio txartela beste inori utzi.



Hernaniko
Udala

euskara
ari du



EUSKAL
HERRIA